

KALAKA ZUREZKO PLAZA JOKUEN

bildumari esker, gure bezeroen neurria pentsatutako jarduera pertsonalizatuak antolatzen ditugu. Komunikazio eta gizarteratze-espazioak sortzen ditugu jolas-dinamiken bidez, jasotzaileek (erakunde publiko, elkarte, enpresa eta abarrek) proposatzen dizkiguten helburuak lortzen laguntzeko.



info. gehiago



Kalaka

TALLERES, OCIO Y FORMACIÓN

KONTRATAZIOA **635 702 976**

Alderdi didaktikoak landu eta trebeziak, gaitasunak nahiz abildadeak garatzen eta indartzen ditugu ikuspegi ludiko batetik begiratuta.

Laudion dugun ebanisteria-lantegian diseinatzen eta egiten ditugu jokuak, eskuz, diseinuari, akabereei eta segurtasunari zorrozki erreparatuta.

Lantegia 2002an ipini zen martxan eta ebanisteria, tornu nahiz eskultura-lanak egiten ditugu askotariko zurez. Hainbat urtez beste profesionalekin batera (psikopedagogoak, psikologoak...) lanean, ikerketan eta lankidetzan aritu ondoren, enpresaren jarduera berritzeko eta dibertsifikatzeko grinak jarduera-ildo berri hau martxan jartzera eraman gintuen 2012an.



Jarraian, eskaintzen ditugun tailerrak eta jolas-dinamikak aurkeztuko dizkizuegu.

Jolasteko PREST?

Jolasak bizitzaren zati ditugu, haurtzarotik bertatik rola, trebeziak nahiz kontzeptuak ikasteko bide naturala baitira. Eta hori horrela izanda, zergatik ez jarraitu erabiltzen bizitza osoan?



ZUREZKO 20 JOKUZ OSATUTAKO BILDUMA

Aukerarik zabal eta osatuena da, 3 bilduma elkartzen direlako jarduera bakarrean:

- *Puzzleen eta asmamen nahiz estrategia jolasen bilduma.
- *Jolas kooperatiboen bilduma.
- *Joku erraldoien bilduma.

Helburua: Zentzumen guztiak garatzea eta, horrez gain, trebezia, asmamena, iaiotasuna, zehaztasuna, kontzentrazioa, koordinazioa, oreka, espazio-orientazioa antzeko alderdiak ere indartzea.



Bi profesional egongo dira parte hartzaileekin, jarduera ludiko eta sozial honekin gozatzeko laguntza eta aholkuak ematen.



kalaka jokua

Jarduera leku itxietan zein aire zabalean egin daiteke.

DINAMIKA KOOPERATIBOAK

Jarduera honi esker, taldearen barruko loturak eta komunikazio-espazioak ezartzen dira. Bereziki diseinatu da lantaldeak eratu eta taldekideak motibatu nahi dituzten enpresa, erakunde eta abarretarako.



Helburua: Pertsonak aurreiritzirik eta eragozpenik gabe elkarrekin erlaxatzea. Komunikazioa (hitzezkoa nahiz hitzik gabekoa), enpatia, estrategia, ebazpen gaitasuna eta beste hainbat trebezia garatzea.

Taldeak dinamizatzen esperientzia handia duen profesional batek zuzentzen du.

Ahal bada, leku itxietan egitekoa.

SENTSIBILIZAZIO JOLASAK

Askotariko jolasak eta dinamikak ditu tailer honek, kasuan kasuko ekitaldietarako eta jasotzaileentzako pertsonalizatuta eta moldatuta.

Bereziki lantzen dira kolaborazio-jolasak.

Helburua:

Zenbait gairen inguruko sentsibilizazioa lantzen da, besteak beste, genero-berdintasuna, euskara, ingurumena, belaunaldien artekoa, etab.

Jolas kooperatiboa jardunaldia eta landu nahi den mezua aurkezteko elementu gisa erabiltzen da.



Profesional batek dinamizatzen du saioa.
Aire zabalean nahiz leku itxietan egiteko

PEDALEZ DABILEN TAILERRA

Jarduera ludiko eta didaktikoa.
Bizikleta estatiko baten gainean jarrita, tornu baten bidez ardatz bat birarazteak duen garrantzia azpimarratzen da.

Gauza primitiboak eta gaur egungoak lotzen ditu tailerrak.

Helburua: Hausnarketa eragitea eta zientzia gertuko gauza bihurtzea. Ingurumen-sentsibilizazioa: energia berriztagarria sortzea, iraunkortasuna, kontsumo arduratsua etab. Profesional batek dinamizatzen du saioa.
Aire zabaleko formatuan (ikusbizitza) nahiz leku itxietarako formatuan (ludiko didaktikoa) eskuragarri.



MUNDUKO LEHENENGO KASINO DEFIZITARIOA

EUSKO -VEGAS

Kasino bat simulatzen duen bost jokutako bildumak osatzen du ikuskizun tematiko hau.

Helburua: Norbanakoen nahiz taldearen trebezia eta ahaleginak saritzea zoriaren eta zortearren gainetik.

Profesional batek dinamizatzen du saioa.

Aire zabalean nahiz leku itxietan egiteko.



Kalaka

TALLERES, OCIO Y FORMACIÓN

KALAKA JOKUAK daramagunok zurekin batera egin nahi dugu lan, urteetan metatu dugun esperientzia eta iaiotasuna zure esku jarrita.

Gustuko ditugu erronkak, pertsonekin lan egitea eta gauza berri, sortzaile eta berritzaileak egitea.

Jolasak dira horretarako tresnarik egokienak.

GUREGAN KONFIANTZA IZAN DUTE



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala



ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA
AYUNTAMIENTO ARRANKUDIAGA ZOLLO



URDUÑA Barrio de
ORDUÑA Capital

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO



Zamudio



ZEÑURI



Asociación Alavesa
de Familiares y Personas
con Enfermedad Mental



**HAN CONFIADO EN NOSOTROS AYUNTAMIENTOS,
ASOCIACIONES, COLEGIOS, COMERCIOS Y PARTICULARES**

Desde KALAKA JOKUAK queremos trabajar contigo,
acompañarte y aportarte nuestra experiencia y saber hacer.

Nos gustan los retos, trabajar con personas y hacer cosas nuevas,
creativas, innovadoras y muy divertidas.

El juego es la herramienta perfecta para lograrlo.

Kalaka

635 702 976